

## 1512: orduko porrota, gaurko erronka

**GAURKO** egunetik ikusita, eztabaida eta hausnarketa da 1512-2012ko data esanguratsu eta garrantzitsuek oro har ekarri dutena, eta egungo gizarte arin eta azalekoan, asko da hori. Egungo dialektikak argi erakusten du iragana nola proiektatzen den orainera, eta alderantziz, oraina iraganera.

Esate batera, konkista hala ituna? Nabarrismoak lortu du Nafarroa eta Espainiako erresumen itun historikoaren ideia egungo ordenamendu juridikora eramatea, hor ez da zalantzarik, Foru Hobekuntzaren ideia bera da horren erakusle garrantzitsuena.

Baina ikuspegi historikotik, nabarrismoak berak ere gaur egun onartua du 1512ko hura konkista hutsa izan zela, garai hartan egiten ziren beste askoren parekoa. Alfredo Floristán historialari nabarristak –bera da Nafarroako Gobernuak mendeurrenerako eraturako batzorde bereziaren buru– dataren kariatara idatzitako artikuluetan argi uzten du ideia hori, esate baterako *Pregón* aldizkarian idatzitakoan: “*Navarra en 1512: quién conquistó y quién fue conquistado*”. Bai, konkista izan zen, baina konkistatuak izaten utzi ginen esatera dator, nafarroako herritarrek eta nobleziak konkista lagundu zuten.

Mercedes Galán historialariak ere antzerako ondorioak ateratzen ditu aldizkari berean, Julio II.aren bulda ospetsuek konkista justifikatzen ote zuten aztertzen du eta erantzuna oso argia da: “Ez dago konkistarako justifikazio juridikorik”. Zer dago orduan? “Biztanleriaren onarpena”, garai hartan Gaztelako erregearekiko *menpekotasun libre eta boluntario* gisako titulupena gauzatu zena. Konkista ez zela justua izan alegia, baina azkenean nafarrek onartu egin zutela, bereziki nafarren ohiko itunzaleta-



sunagatik, eta Nafarroari erresuma izaera, bere instituzioak eta bere zuzenbidea onartu zitzaizkiolako.

Akademia mailako onarpenak, politikara eta dibulgaziora ere iritsi dira, baina lausoago. Ezaguna da UPNk bere militanteen artean zabaldu zuen hausnarketa: “Ez du zentzurik konkista, anxio edo inkorporazioaren eztabaidak...”. Eta onartzen du konkista izan zela, “baina hobeto inkorporazioa erabiltzea, hori bera egiten zuen Fernando Katolikoak eta”. Eta hala egin dute: Navarra 1512. La incorporación de Navarra a la Corona de España” (*Pregón* aldizkariako otsailko aldizkariaren titulua). Bai, konkista izan zen –jarraitzen du kontakizun historiko berriak–, baina ez oso latza, gainera behamondarrek sostengatu zuten eta errege nafarrek alde egin zuten Iruñetik. Funtsan, erregeak aldatu ziren, baina Nafarroak independente izaten jarraitu zuen. Hortan da gaur egun, nabarrismoaren iritzi ofiziala.

**ETA ABERTZALEAK?** Nola ari dira kudeatzen data? Ez da zalantzarik azken urte luzeetan abertzaletasunak astindu duela gehien data, bai akademiaren eremuan, dibulgazioan, edota kalean, larunbatean

Nafarroa Bizirik elkartearen deialdiak Iruñean erakutsiko duen moduan.

Eremu honetan zalantza gutxiago dago gertakizunez, azken urteetan gainera asko ikertu da eta horien ondorioak are eta garbiagoak dira: konkista latza izan zen, garai hartako justifikazio legezkorik gabekoa eta egungo Nafarroaren oinarri juridiko-politikoaren abiapuntua jarri zuena. Ezberdintasun nagusienak historiak nazio eraikuntzan –edo berre-  
raikuntzan, askok dioten

moduan– izan behar duen irakurketan daude; edo Nafarroak Euskal Herriaren egituraketan izan behar duen ezaugarriez.

Ongi da mendeurren hau nazio aldarrikapenerako baliatzea, Nafarroaren eta Euskal Herriaren egungo egoeran horixe baita logiko eta egokiena. Baina ez dezala kateatu iraganak oraina, eta are gutxiago etorkizuna: iraganak zer garen ulertzen laguntzen digu, baina izango garena, geuk eta orain erabaki behar dugu.

Bostehun urteko tartea bada ere, bada antzeko ezaugarriak orduko eta egungo Nafarroako gizartean, horietako bat da bai orduan eta bai gaur egun eliteek agintzen dutela, errege eta jauntxoek orduan, finantza eta ekonomia eliteek gaur egun. Eta hauek, orduko herritarren murrizketa egoera iraunkorrera eramango gintuzketela, ahalko balute. Hor da egun eta orain borroka gunea.

Desberdintasun nagusia da orduan herritarrek ezin zezaketela aldatu hori beren botoekin eta gaur egun bai. Konkistaz ehurtzen hasi zirena botoez gandi daitekeela, hori da egungo nafar abertzaileen esperantza, hori erronka.

